

UDAL BATZARRAREN AKTA

Akta zenbakia: 6/2002

Bilera data: 2002-05-28

Bilera mota: Ohiz kanpoko osoko bilkura

Deialdia: Lehenengoa

Ordua: 19:35 – 20:00

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratutakoak:

Alkatea: Jose M^a Sarasola Goenaga

Alkate orde: Pedro M^a Peñagarikano Labaka

Zinegotziak:

Miren Maite Aizpurua Etxeberria

Manuel Odriozola Iruretagoiena

Mikel Errazkin Agirrezabala

Rafael Uribarren Axpe

Mikel Zubillaga Galarraga

Idazkaria:

Iñaki Arrue Espinosa

Aztergaiak:

1.- Udalbatzarrak 2002ko maiatzaren 9an egindako bilkurari dagokion aktaren onespina.

2.-1. Eremuaren eta 19. Eremuaren arteko hitzarmena onesteko proposamena.

3.-2002. urteko aurrekontuaren aurkezpena.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.-. Udalbatzarrak 2002ko maiatzaren 9an egindako bilkurari dagokion aktaren onespina.

Aipatutako akta alkateak irakurri du eta eztabaidarik egin gabe eta inongo eranskinik gabe dagoen dagoenean onartu du udalbatzarrak.

Erabakia

Bertaratutakoek 2002ko maiatzaren 9an egindako bilkurari dagokion akta aho batez onetsi dute.

2.- 1. Eremuaren eta 19. Eremuaren arteko hitzarmena onesteko proposamena.

Alkateak azaldu du 1. Eremuaren eta 19. Eremuaren arteko hitzarmena onestea premiazkoa dela, bi lur-zati horien trukaketa lehenbailehen eskrituratzeko asmotan daude eta.

Alkateak ere adierazi du bilkura honen jakinarazpenarekin batera bidali ziren dokumentuek akats batzuk zituztela eta, beraz, zuzendutako dokumentuak banatu dizkie bertaratutakoei eta, bide batez, trukaketa horrek suposatzen duen ondorengo laburpena ere, zenbakitan, banatu die:

PERMUTAREN LABURPENA:

UDALAK:	A1.....	68.460.390
	Dirutan	14.917.790
	Denetara	83.378.180
JUBIN:	A19	62.878.180
	140 m2	10.500.000
	Urbanizazioa	10.000.000
	Denetara	83.378.180

Laburpenaren arabera, Anoetako Udalak jarriko du A1 arean daukan partizipazioa (udaletxe zaharrean eta inguruan daukan terrenoa), 68.460.390 pezetako balorazioa, eta dirutan jarriko luke 14.917.790 pta. Beste aldetik, Jubin jaunak, Arridon SL izenean, jarriko ditu A19ko udalarena ez den zatia, 62.878.180 pezetakoa, 140 m2ko terrenoa 10 milioi eta erdikoa eta, azkenik, elizaren aurreko plaza publikoaren zati bat urbanizatzeko gastuak, 10 milioikoa.

Jarraian EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak hitza hartu du esateko bere talde politikoak ez duela parte hartuko erabaki honetan lur-zati hauen trukaketa-prozesua ondo ezagutzen ez dutelako, ez daudela trukaketaren aurka, baina uste duela sakonkiago eta hobeago aztertzeko eta begiratzeko gaia dela. Beraz, eskatzen du bere talde politikoko abstentzio-jarrera espreski jasota gera dadin, hau da, trukaketaren aurka ez daudela, baina ez dutela parte hartuko akordio hau onartzeko.

Pedro M^a Peñagarikano zinegotzi jaunak ere adierazi du guztiz komenigarria dela gai hau lehenbailehen aurrera ateratzea, eskriturara pasatzeko premia baitago, bestelakoan trukaketa-operazioak porrot egingo lukeela.

Eztabaidatu ondoren, udalbatzarrak bozkatu du eta bozketaren emaitza ondorengo izan da:

Alde: 5 (Batasuna)

Aurka: ----

Abstentzioa: 2 (EA-EAJ-PNV)

Erabakia

Udalbatzarreko gehiengo osoa osatzen duten zinegotziek onartu dute:

1.- Proposatutako Arau Subsidiarioetako 1. eremuaren eta 19. Eremuaren arteko trukaketa-hitzarmena, akta honen I. eranskinean jasotzen dena, onartzea.

2.- Jose M^a Sarasola Goenaga alkate-lehendakari jaunak Anoetako Udalaren izenean eta ordezkartzapean aipatutako hitzarmena sina dezan gaitasuna ematea.

3.- 2002. urteko aurrekontuaren aurkezpena.

Alkateak 2002ko aurrekontu-zirriborroa aurkeztu du udal talde politiko guztiek azter dezaten eta geroago Haziendako Batzordean aurtengo aurrekontuaren inguruan proposamenak aurkez ditzaten.

Alkateak azpimarratu ditu aurreikusten diren inbertsioak: bide-urbanizazioa, bestelako inbertsioak: hiri-mobiliarioa (lore-ontziak eta panelak), saneamendu eta hornikuntza, babes ofizialeko etxebizitzak, frontoiko aldagelak eta parkea, lokalen egokipena (jubilatuen etxea) eta polikiroldegia.

EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Uribarren zinegotzi jaunak adierazi du pertsonal gastuak sakonki aztertu beharrekoak direla, izandako langileen aldatetak, kontratazio berriak eta ordezkapenak ikusirik.

Hortaz, informazio gisa banatu da 200ko aurrekontu-zirriborroa, Haziendako Batzordean aztertu eta eztabaidatzeko, eta udalbatzarrak ez du hartu erabakirik.

Bilkura amaiturik, agiri hau egin dut alkate-lehendakariaren oniritziarekin,
eztabaidatutakoaz eta erabakitakoaz fede emateko.

Anoetan, 2002ko maiatzaren 28an

Iñaki Arrue Espinosa
Bitarteko idazkaria

O.e.
Jose M^a Sarasola Goenaga
Alkatea